

EBATZI DUT:

Lebenengoa.– Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzoz izendapenez kalifikatzeko eta hura zaintzeko babes arauak ezartzeko den abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren arabera (1998ko urtarrilaren 15eko 9. zk. duen EHAA) oinarritzeko babesaren duten honako eraikin hauek osorik desafektatzeko prozedurari hasiera ematea: Pintore kaleko 82. eta 84. zenbakiak, Barnekale Berria kaleko 41. zk. eta Aiztogile kaleko 47. zk..

Bigarrena.– Espedientea jendaurrean jartzea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan ikusgai (Donostia kalea 1 Vitoria-Gasteiz), eta interesdunei entzuteko izapideari ekitea. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokituz jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 84 eta 86 artikuluek ezartzen dutenaren arabera.

Hirugarrena.– Ebazpena interesdunei, Vitoria-Gasteizko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza saili eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea, eta ebazpen honen aurka errekurtsorik jartzerik ez dagoela adieraztea, erabaki hau tramite hutsezko egintza bat baino ez da-eta.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 13a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

3798

AGINDUA, 2006ko ekainaren 30ekoa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duena.

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko ekainaren 4an onartutakoak, besteak beste, helmuga hau jasotzen du: «aire, ur eta lurzoruko garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea». Helmuga hori lortzearen, Estrategiaren lehen-tasuneko eginkizunetakoa da produkzio-sistema garbiak

RESUELVO:

Primero.– Incoar procedimiento de desafectación total de los edificios siguientes de Vitoria-Gasteiz, elementos de protección básica en virtud del Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 9, de 15 de enero de 1998): los n.º 82 y 84 de la c/ Pintorería, n.º 41 de la c/ Nueva Dentro y n.º 47 de la c/ Cuchillería.

Segundo.– Abrir un periodo de información pública, y conceder trámite de audiencia a cuantos resulten interesados para que en el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, conforme a los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992 del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la presente resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a los Departamentos de Cultura y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, comunicándoles que frente a la misma no cabe la interposición de recurso alguno, al tratarse de un acto de mero trámite.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de junio de 2006.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACION DEL TERRITORIO

3798

ORDEN de 30 de junio de 2006, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible, aprobada por Consejo de Gobierno de 4 de junio de 2002, recoge entre sus metas «Garantizar un aire, agua y suelos limpios y saludables». Con el fin de alcanzar dicha meta, la Estrategia se ha fijado como uno de sus objetivos prioritarios el de promover sistemas de

bultzatzea. Horretarako, enpresa-sektoreari pizgarriak eskaintzea proposatzen du, ingurumen-helmuga berrieta-rantz bideratutako pizgarri-politika finkatuta.

Ildo horretatik, martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuak Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren erregulazioa ezartzen du, ingurumenaren ikuspegitik lehen-tasunekoak diren teknologiak antzemateko, eta zerga-politika teknologia horietarantz bideratzeko, politika horren bi alderdietatik, hots: aipatutako teknologiak enpresen produkzio-prozesuetan sar daitezzen pizgarriak ematea, zergen arloko neurrien bidez; eta gastu-politika ezartzea.

Dekretu horretan xedatzen denez, Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartuko diren teknologiak hautatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak prospekzio aktiboa egingo du, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta batzorde tekniko baten lankidetzarekin.

Martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuan adierazitakoan arabera, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren baitan teknologiak onartu eta eguneratzeko, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak agindua eman behar du. Agindu horretan, Dekretuaren hirugarren artikuluan zehaztutako edukia jasoko da, laugarren artikuluan ezarritako irizpideak kontuan izanda.

Prospekzio aktibo zorrotza egin ondoren, aipatutako dekretuaren lehen artikuluan jasotzen den teknologia garbiaren definizioari erantzuten dioten zenbait teknologia antzeman dira. Definizio horren arabera, teknologia garbia da ingurumena hobetzea azken helburu duen ekipoa edo instalazioa; halakotzat, hobekuntza hori dakarten instalazioaren ekipoa edo osagaiak soilik hartuta. Antzemandako teknologia horiek, gainera, Dekretuaren laugarren artikuluan adierazitako irizpideetara egokitzen dira.

Horrenbestez, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuak ematen didaten eskumenaz baliatuz,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da berarekin batera doan eranskinean zerrendatzen diren teknologiak onartzea, martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuan araututako Teknologia Garbien Euskal Zerrendan barne har daitezzen.

2. artikulua.– Teknologia garbiak hautatzeko irizpideak.

1.– Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren erregulazioa ezartzen duen martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, teknologia horiek hautatzeko, honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

producción limpia, para lo cual plantea incentivar al sector empresarial estableciendo una política de incentivos orientada hacia las nuevas metas ambientales.

En este contexto, el Decreto 64/2006, de 14 de marzo, establece la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias, a efectos de identificar las tecnologías prioritarias desde la óptica medioambiental hacia las cuales orientar la política fiscal en sus dos vertientes; tanto en el sentido de incentivar la introducción de dichas tecnologías en el proceso productivo de las empresas a través de medidas de carácter tributario, como mediante la política de gasto.

Dispone el mencionado Decreto que la selección de tecnologías para su inclusión en Listado se realizará mediante prospección activa por parte del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, con la colaboración del Departamento de Industria Comercio y Turismo y de un Comité Técnico.

La aprobación y actualización de las tecnologías en el seno del Listado Vasco de Tecnologías Limpias, de acuerdo con lo señalado en el Decreto 64/2006, de 14 de marzo, se realizará por Orden de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, que tendrá el contenido especificado en el artículo tercero del Decreto, tomando en consideración los criterios establecidos en el artículo cuarto.

Tras la realización de una exhaustiva prospección activa se han detectado una serie de tecnologías que responden a la definición de tecnología limpia que se contempla en el artículo primero del Decreto referenciado, esto es, aquel equipo o instalación que tenga como fin último la obtención de la mejora ambiental, incluyéndose como tal, sólo el equipo o componentes de la instalación que generen dicha mejora, y que se adecuan a los criterios señalados en el artículo cuarto del Decreto.

En su virtud, y en el ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, así como el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden la aprobación de las tecnologías que se relacionan en el anexo a la misma para su inclusión en el Listado Vasco de Tecnologías Limpias regulado por el Decreto 64/2006, de 14 de marzo.

Artículo 2.– Criterios de selección de las tecnologías limpias.

1.– De conformidad con lo establecido en el artículo 3.1 del Decreto 64/2006, de 14 de marzo, por el que se establece la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias, los criterios que se han tomado en consideración para llevar a cabo la selección de las tecnologías se relacionan a continuación:

Teknologiaren ezarpen-maila hura aplikatzekoa den sektoreetan: % 20tik beherako ezarpena sektorean.

Teknologiaren transferigarritasuna, haztapan honen arabera:

- 0 eta 10 enpresa artean, 2 puntu.
- 10 eta 50 enpresa artean, 4 puntu.
- 50 eta 300 enpresa artean, 7 puntu.
- 300 enpresatik gora, 10 puntu.

Gutxieneko inbertsioa: 2.000 euro-tik gorakoa eta 500.000 euro-tik beherakoa.

Amortizazioaldia: 5 urtetik gorakoa, aparteko inbertsio-kostu gisa kalkulaturik, urteko aurrezki gehigarriekin zatituta eta urteko kostu gehigarriak kenduta.

2.– Energia Garbien Euskal Zerrendaren ondorengo eguneratzeetan, aurreko atalean zehaztutako hautaketa-irizpideak aldatu ahal izango dira, martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuaren 3.3 artikuluan ezarritako irizpide teknikoetara egokituta betiere.

3. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera; edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2004ko apirilaren 27ko Agindua, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuarena, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 30a.

Ingurumen eta Lurralde
Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen da
aipaturiko eranskina

Grado de implantación en los sectores en que es de aplicación: implantación de la tecnología en el sector inferior al 20%.

Transferibilidad de la tecnología, de acuerdo con la siguiente ponderación:

- entre 0 y 10 empresas 2 puntos.
- entre 10 y 50 empresas 4 puntos.
- entre 50 y 300 empresas 7 puntos.
- más de 300 empresas 10 puntos.

Inversión mínima: superior a 2.000 euros e inferior a 500.000 euros.

Periodo de amortización: superior a 5 años calculado como costes de inversión extra dividido por los ahorros anuales adicionales, menos los costes anuales adicionales.

2.– Los criterios de selección especificados en el apartado anterior podrán variar en posteriores actualizaciones del Listado Vasco de Tecnologías Limpias, sin perjuicio de su adecuación a los criterios técnicos establecidos en el artículo 3.3 del Decreto 64/2006, de 14 de marzo.

Artículo 3.– Recursos.

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio en el plazo de un mes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 116 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o bien recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 27 de abril de 2004, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, por la que se aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2006.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

En Suplemento aparte se publica
el anexo que se cita